

# HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURAREN BILDUMA

\*\*\*\*\*

.....

2019ko azaroaren 19an, 18:00etan, Donamartiriko herriko kontseilua bildu da, Antton LARRABURU jaun auzapezaren lehendakaritza pean.

Hor zirenak: Antton LARRABURU, Alain ARMENDARIZ, Xalbat BORDARRAMPE, Inès CHABAGNO, Mirentxu MINONDO, Bernadette POCHELU, Didier POCHELU, Jean-Pierre LADEUIX.

Hor ez zirenak: Emmanuelle HARISMENDY andreak Antton LARRABURU jaunari ahalordea eman dio, Alain APHECETCHE, Mathias MIRANDE.

Bilkurako idazkaria: Jean-Pierre LADEUIX.

Bilkuraren hastapena: 18:00.

## **1/ Besta Komiteari ezohiko diru laguntza baten ematea**

**Gaia: 2019ko herriko aurrekontuari buruzko 4. aldaketa deliberoa**

Auzapez jaunak biltzarrari Besta Komitearen finantza mailako zailtasunak aurkezten dizkio. Izan ere, Besta Komiteak 2019ko urtea bururatzeko zailtasunak ditu.

Auzapez jaunak biltzarrari proposatzen dio Besta Komiteari 2 500 €-ko ezohiko diru laguntza baten ematea.

Eta, behar diren kredituak ukateko, gehitzen du 2019ko herriko aurrekontuari buruzko aldaketa deliberoa onartu behar dela.

Ondorioz, ondoko banku biramendua egin beharko da:

6574. artikulua: + 2 500 €

622. artikulua: - 2 500 €

Herriko kontseiluak, auzapez jauna entzun eta eztabaidatu ondoan,

**ONARTZEN DU** gorago aipatu biramenduaren egitea.

## **2/ Gaia: Arberoako ibarrean zahar etxe baten eraikitzeko herriarteko sindikatuaren desegitea**

Auzapez jaunak biltzarrari Baionako suprefetaren gutuna irakurtzen dio. Arberoako ibarrean zahar etxe baten eraikitzeko herriarteko sindikatuaren desegitea gauzatzeko deliberoaren xedea aipatzen du. Egun, Aiherrako, Lekuineko, Isturitzeko, Mehaineko, Oragarreko, Donoztiriko eta Donamartiriko

herriek osatzen dute sindikatua. 1969ko ekainaren 16an sortu zen, prefeturaren deliberoaren ondorioz. Xedea zen Isturitzeko herrian zahar etxe baten eraikitzea.

Sindikatu hau ez da aktiboa. Badu urteak ez dela kontu mugimendurik eta aurrekontu mugimendurik izan.

Gainera, bi urtez geroz aktibitaterik ez duen sindikatu bat prefetaren delibero baten ondorioz desegiten ahal da, sindikatuaren kide diren herrietako herriko kontseiluek horren aldeko iritzia adierazten badute.

Horregatik, auzapez jaunak biltzarrari proposatzen dio prefeturaren deliberoaren aldeko iritzia adieraztea.

Herriko kontseiluak, auzapez jauna entzun eta eztabaidatu ondoan,

Arberoako ibarrean zahar etxe baten eraikitzeko herriarteko sindikatua desegitearen aldeko iritzia **ADIERAZTEN DU.**

Bilkuraren bururapena: 19:00

22/11/2019/11/22 afixatzeko, Lurralde Elkargoen Kode Orokorraren L.2121-25 artikulua aginduen arabera

Auzapeza,

22/11/2019/11/22an